BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO

108. zk. 2025, ekainak 09. Astelehena 1. orr.

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udal Euskaltegia

Basauriko udal euskaltegiko Administrari lanpostu bat txanda irekiz betetzeko lehiaketa-oposizioa arautuko duten oinarriak.

Lehena.— *Deialdiaren helburua*

Oinarri hauen xedea da, lehiaketa-oposizio askearen bidez, Basauriko Udal Euskaltegian hutsik dagoen administrari lanpostu bat betetzeko deialdia arautzea, hain zuzen, lan-kontratudun langileentzat gordeta dagoena, zeina 2023ko enplegu publikoaren eskaintzari baitagokio, Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratua 2023ko azaroaren 16an.

Lanpostu kopuruagatik izendatu gabe geratzen diren hautagaiek lan-poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Lan-poltsa hori erabiliko da antzeko edo lanpostu berdineko lanak denboraldi batez egiteko, Udal Euskaltegi honek onartutako irizpideen baitan.

Bigarrena.— *Lanposturen ezaugarriak*

— Araubide juridikoa: Lan-kontratudun langilea.

— Lanpostu kopurua: 1.

— Lanpostu mota: Administrazio orokorra / Administratiboa.

— Sailkapen taldea: C1.

— Lanpostuaren izena: Administraria.

— Eskatutako hizkuntza eskakizuna: C1C1, derrigorrezkoa.

Hirugarrena.— *Lanpostuaren egitekoak*

Orokorrak

Administrazio-lanak:

— Udal Euskaltegiaren Gestio Akademiko eta administratiboa garatu, beti ere nagusiek ikuskatua: matrikulak, dirulaguntzak…

— HABEren ekarpen ekonomikoa kudeatu, erakunde horrek ezarritako irizpideen arabera, zuzendariak ikuskatuta.

— Ikasle zein irakasleei dagozkien altak, bajak eta mailaketak tramitatu HABEren programetan, Idazkari Akademikoak ikuskatuta.

— Beste administrazioen diru-laguntzak eta arlo akademikoari buruzko informazio trukeak tramitatu.

— Korrespondentzia kudeatu.

— Jendea informatu eta telefonoaz arduratu.

— Bere esparruaren barruan, zuzendariak eskuorde lekizkiokeen kontsulta eta iradokizun eta erreklamazioak atenditu.

Laugarrena.— *Deialdian parte hartzeko baldintzak*

Eskabideak aurkezteko, hautagaiek eskatzen diren baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzekoa den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeko Itunean definituta dagoen moduan.

b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien on-

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

dorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).

c) Aurretiazko eskaera egitea.

d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

e) Hamasei (16) urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

f) Diziplina-espedientearen bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erkidegoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaikuntza absolutu edo berezia ez izatea.

g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

h) Batxilergoa, LHII edo baliokidea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria eduki beharko da. Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria dutela egiaztatu beharko dute.

i) Hautaketa-prozesuaren barruan honako modulu hauen IT Txartelaren ziurtagiriak dituztela egiaztatzea:

— Microsoft Word Aurreratua, edozein bertsio.

— Microsoft Excel Aurreratua, edozein bertsio.

— Microsoft Outlook, edozein bertsio.

— Internet Aurreratua.

Ezagutza horien ziurtagiria eskuratu eta hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, eskabideak aurkezteko epean egiaztatu ez bada, oposizio-aldian egindako azken ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamargarren eguna izanik muga. Egun hori baino lehen ziurtagiriak lortu eta aurkeztu ez dituzten izangaiak ez-gaitzat joko dira, eta hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira. Hori ebazpen arrazoituaren bidez emango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie.

IT Txartelaren ziurtagiria lortzeari dagokionez, honako hau adierazten da:

— Ziurtapen-probarako sarbidea izateko egiaztatutako zentro batean eman beharko dute izena. Zentroen zerrenda osoa helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke: www.it-txartela.net

— Izen-ematea www.it-txartela.net helbidean egin daiteke.

— Halaber, informazioa eska daiteke aipatutako helbide elektroniko honetan edo egiaztatutako edozein zentrotara joanda.

— Probak garatzeko eta kalifikatzeko, ziurtagiria eman duen organoak ezarritako arau orokorrak bete behar dira.

j) C1C1 hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den eguna izango da.

k) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubideaz baliatzea.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

l) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu izana. Zenbatekoa: 15 euro (agiri administratiboak luzatzeari buruzko tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskaleko 7. atalean zehaztua, Basauriko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan azterketa- eskubideengatik ordaindu beharreko tasak jasotzen dituena). Ez dute tasa ordaindu beharko langabezian daudenek (enplegu-eskariaren txartela aurkeztu beharko dute egoera horretan daudela egiaztatzeko). Tasa modu nominalean eta banan-banan ordainduko da.

m) Deialdia egin duen euskaltegian ez izatea kategoria bereko lan-kontratuko langile finkoa.

n) Berariaz onartzea beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

o) Kondenaturik ez egotea epai irmoz delituren bat egiteagatik sexu-askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren aurka, zeinetan sartzen diren sexu-erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, eta adingabeak galbideratzea, bai eta gizon-emakumeen salerosketa ere. Hartarako, egiaztatu beharko du esandako hori, ziurtagiri baten bidez, non agertuko duen ez dagoela erregistratuta sexu-delitugileen erregistro zentralean.

p) Lanpostua lortu nahi dutenek oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 4.i eta 4.j oinarrian aurreikusitako salbuespena izan ezik.

Bosgarrena.— *Eskaerak aurkeztea*

5.1. Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira eskaerak.

5.2. Eskariak aurkezteko lekua eta modua:

5.2.1. Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaio. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea oinarrien 2. eranskinean agertzen den ereduaren araberakoa izango da, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5.2.2. Basauriko Udal Euskaltegiko idazkaritzan edo 39/2015 legeak —Administrazio publikoen prozedura amankomun legeak— 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak. Kasu horretan, dagokion funtzionarioak eskabideak aurkezteko epean data eta zigilua ipini beharko die. Horrela eginez gero, bakarrik egiaztatuko da eskabideak aipatu erregistroetan sartutako egunean izan duela sarrera Basauriko Udal Euskaltegian (zigiluak eskabidean bertan egon behar du).

5.2.3. Eskabidearekin batera honako hauek erantsiko dira:

— Berariazko adierazpena: eskabidean adierazi beharko da deialdiaren oinarri-arauetan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla. Horretarako, sinatutako adierazpena egin beharko da.

— Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzeko ardura duen organoak, prozeduraren edozein momentutan, hautagaia hautaketa-prozesutik kanporatu egingo du, haren arrazoiak entzun ondoren, jakiten badu ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko ezarritako eskakizunak.

— Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eskuratzeko moduan dagoela egiaztatzen duen titulua edo dokumentazioa, izena emateko baldintzetan ezarritakoa egiaztatzekoak:

- Nortasun-datuak egiaztatzeko agiria (NA edo baliokidea).
- Titulazio akademikoa (Batxilergoa, LHII edo baliokidea).
- IT Txartelak, 4.i oinarrian aurreikusitako salbuespena izan ezik.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

- C1C1 hizkuntza-eskakizuna, 4.j oinarrian aurreikusitako salbuespena izan ezik.
- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu izanaren agiria: 15 euroko diru-sarrera Basauriko Udal Euskaltegiaren kontu honetan egin beharko da: ES07 2095 4408 509107506290, hartzailearentzako kontzeptuan hautagaiaren izen abizenak adieraziz.
- Halaber, hautagaiak aurkeztu ahal izango ditu lehiaketarako kontuan hartzekoak izan daitezen nahi dituen merituen agiriak.

5.3. Ezgaitasuna dutenen kasuan: Ezintasunen bat daukaten lehiakideek hala adierazi beharko dute eskaeran, dagokion laukia markatuz. Era berean, beharrezko balute denbora edo baliabideak egokitzea probak egin ahal izateko, hala adierazi beharko dute. Lehiakideak aurkeztu beharko ditu ezintasuna jasotzen duen egiaztagiri ofiziala eta egin beharreko egokitzapenen inguruko txostena. Agiri horiek onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko ditu, epaimahaiak denbora izan dezan egin beharreko egokitzapenak egiteko. Ezgaitasuntzat hartzen da 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginak onartzen duena. Bestela esanda, administrazioan horretarako eskumena daukan organoak 100eko 33ko elbarritasuna edo handiagoa aitortu dien pertsonak dira ezinduak edo elbarriak.

5.4. Izaera pertsonaleko datuak. Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta aplikagarri diren bestelako arauak. Datu pertsonalak hautapen- prozesuan parte hartzeko eskaerak kudeatzeko ez besterako erabiliko dira, interesdunak emandako baimenean eta datu tratamenduaren arduradunari aitortutako ahal publikoetan oinarrituta, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta zirkulazio libreari dagokienez, pertsona fisikoak babestekoak, 6.1 artikuluaren a) eta e) letretan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

Datu pertsonalak eman ezean, ezin izango da aurkeztu hautaketa- prozesuan.

5.4.1. Berariazko baimena eman beharko dute hautagaiek, parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko, 9. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako. Datu-lagapen horren helburu bakar eta esklusiboa izango da administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala; eta hautagaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

5.4.2. Tratamenduaren legitimazioa: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatuaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea; eta 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuak betetzeko eta administrazio bereko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako arautegi orokorra onartzen duena.

5.4.3. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea baliatu ahal izango da; horretarako, Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakariari jakinarazi beharko dio helbide honetan: Urbi, 33, 48970-Basauri (Bizkaia). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Halaber, hautagaiek eskubidea dute datuak lagatzeko baimena erretiratzeko, eta eskubidea dute baita datuen babesaren arloko Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa egiteko ere.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

Seigarrena.— *Hautagaiak onartzea*

Hautaketa-prozesuan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Eskabidea atal guztietan betetzea.
2. Epearen barruan aurkeztea.
3. Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta Epaimahai Kalifikatzailea izendatzeko ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da. Erreklamazioak egiteko 10 egun balioduneko epea izango da, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan dioenaren arabera.

Erreklamaziorik egingo ez balitz, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da besterik gabe. Erreklamaziorik egingo balitz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeari buruz hartuko den ebazpen berri baten bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da.

Erabaki horren aurka demanda jarri ahal izango da dagokion Lan-arloko Epaitegiaren aurrean, behin onartu eta baztertutakoen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean, eta bidezko den beste edozein helegite tarteratzea eragotzi gabe.

Zazpigarrena.— *Epaimahai kalifikatzailea*

Epaimahai Kalifikatzailea kide titularrek eta ordezkoek osatuko dute, eta horien izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko da.

Honako hauek izango dira kideak, Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legean eta 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 60. artikuluan jasotakoaren arabera:

— Mahaiburua:

- Euskaltegiko zuzendaria. Ordezkoa, euskaltegiko langile bat. Zuzendaritzan aritua izatea lehenetsiko da.

— Mahaikideak:

- Euskaltegiko administrari bat. Ordezkoa, Basauriko udaleko edo haren erakunde autonomiadunetako bateko administraria.
- Udal Euskaltegi bateko administraria edo udal bateko administraria. Ordezkoa, Udal Euskaltegi bateko administraria edo udal bateko administraria.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat, eta baita horren ordezkoa ere.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat euskara proba egiteko, eta baita horren ordezkoa ere.

— Idazkaria:

- Euskaltegiko idazkari akademikoa. Ordezkoa, euskaltegiko langile bat.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideei aplikatuko zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotzen diren abstentzio- eta ezezpen-kasuak.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

Langileak hautatzeko organoek kolegiatuta jardungo dute eta, osaketa, berriz, profesionaltasun eta inpartzialtasun printzipioei jarraiki egingo da. Era berean, emakume eta gizonen arteko parekotasuna gogoan hartuko da.

Epaimahaia osatuko duten mahaikideen erdiek gutxienez eduki behar dute lanpostua eskuratzeko eskatzen den jakintza arlo berari dagokion titulazioa, eta mahaikide guztiek maila akademiko berekoa edo goragokoa izango dute.

Epaimahaiak, komenigarritzat jo dezakeen probetan, lantzen diren gaietan adituak diren aholkularien lankidetza eska lezake.

Epaimahaikideak eurak dira deialdiaren oinarriak betetzearen eta ezarritako epeetara lotzearen erantzuleak. Deialdi honen oinarrien aplikazioa interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak epaimahaiak ebatziko ditu, gehiengoz; eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin behar dena ere erabakiko du.

Epaimahaia ezingo da osatu eta ezingo du jardun, baldin eta, gutxienez, lehendakaria eta idazkaria, edo horiek ordezkatzen dituzten pertsonak, eta kideen erdiak gutxienez ez badaude. Zenbaketatik kanpo geratzen da idazkari diharduena. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa edukiko dituzte, idazkariak izan ezik; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez. Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa egonez gero, mahaiburu diharduenak ebatziko du.

Epaimahaiaren jardunbidea, uneoro, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak agintzen duenari atxikiko zaio.

Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da Udal Euskaltegiko lehendakariaren aurrean. Hilabeteko epea izango da horretarako, iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.

Ariketak egitera, ebazpen bidez prozesuan onartuak izan diren hautagaiak aurkeztu ahal izango dira. Modu berean, ariketa egiteko unean bertan alegazioak aurkeztu dituztela eta horiek erabaki gabe daudela egiaztatuko duten hautagaiek ere aukera izango dute ariketak egiteko. Aurkeztutako erreklamazioa azkenean onartuko ez balitz, hautagaia prozesutik behin betiko baztertuta geratuko litzateke.

Jakinarazpenak: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatu-takoaren ondorioetarako, hautaketa-prozeduratik eratortzen diren administrazio-egintzak Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko dira. Horrek jakinarazpena ordeztuko du, eta ondorio berak izango ditu.

Zortzigarrena.— *Hautaketa-prozesua*

Langileak sarbide ireki eta oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

8.1. *Oposizioaldia. (Gehienez 60 puntu)*

Oposizioaldiko ariketak egiteko eguna eta ordua Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratuko dira, gutxienez 5 egun balioduneko aurrerapenarekin.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein momentutan eska dezake hautagaiak bere burua identifikatzea. Horretarako, oposizioko ariketa guztietara Nortasun Agiriarekin edo Epaimahaiak hautagaiaren nortasuna behar bezala egiaztatzen duela erabakiko duen beste edozein dokumentu ofizialekin (NA edo baliokidea) aurkeztuko da hautagaia.

Oposizioaldiko ariketa bakoitzean, behin ariketak zuzendu ondoren eta hautagaien nortasuna jakinarazi eta bakoitzaren kalifikazioa zehaztu aurretik, Epaimahaiak ariketa gainditzeko beharrezkoak izango diren gutxieneko puntuak lortzeko nahitaezko ezagueren maila edo atalasea ezarri ahal izango du.

Deialdi bakarra egingo da ariketa bakoitzeko. Epaimahaiak ariketa egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren hautagaiak hautaketa prozesutik kanpo

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

geratuko dira erabat, salbu behar bezala egiaztatu eta epaimahaiak aintzat hartzen dituen ezinbesteko kasuetan.

Epaimahaiak oinarri hauetan zehazten diren oposizioaldiko ariketen hurrenkera aldatzeko ahalmena izango du. Halaber, egun berean ariketa bat edo gehiago egitea erabaki dezake, eta horren berri aldez aurretik emango zaie hautagaiei.

Euskaraz egingo diren ondorengo ariketek osatuko dute oposizioaldia:

Lehenengo ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea. Ezagutza teorikoen testa

Ariketa honetan, gehienez ere, hogeita hamar (30) puntu lor daitezke, eta derrigorrezko proba bat izango da.

Epaimahaiak ezartzen duen gehieneko denboran idatziz erantzun beharko zaio oinarri hauei dagokien gai-zerrendako (I. Eranskina) edukiei buruzko galdera sorta bati, lau erantzun aukeran izanik.

Zuzeneko puntuazio formula honen emaitza izango da: asmatutakoen kopurua ken errore kopuruaren herena (P=A-E/3). Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akastzat hartuko.

Ariketaren azken puntuazioa 0tik 30era bitarte izango da, eta hamartarren bi zifra onartuko dira. Hogeita bat (21) puntu edo gehiago lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira. Izangaien nortasuna ezagutu aurretik eta aurkeztutako izangaien ezagutza-maila ikusita, epaimahaiak hogeita bat (21) puntutik beherako puntuazioa ezarri ahal izango du lehen ariketa hori gainditzeko.

Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Epaimahaiak planteatzen dituen kasu praktiko bat edo gehiago, erantsitako gai-zerrendako (I. Eranskina) edukiei buruzkoak, epaimahaiak zehazten duen gehieneko epean egin beharko dira.

Ariketa hori kalifikatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: erantzunen zehaztasuna, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hogeita hamar (30) puntura bitarte kalifikatuko da, eta hamabost (15) puntura iristen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Hirugarren ariketa: Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzailea

Ariketaren helburua euskarako C1C1 hizkuntza-eskakizuna lortzea da. Ariketa «Gai» edo «Ez Gai» kalifikatuko da, eta gainditzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak dioena betez, proba hori egitetik salbuetsita geratuko dira C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten hautagaiak; bai eta Eusko Jaurlaritzaren 47/2012 Dekretuaren 2. xedapen gehigarriaren arabera C1C1 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzetik salbuetsita daudenak ere.

Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, 10 egun baliodunen epea emango da ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko.

8.2. *Lehiaketaldia. Gehienez 27 puntu*

Lehiaketaldiak ez du baztertze-indarrik edukiko eta ezingo da kontuan hartu oposizioaldiko probak gainditzeko.

Oposizioaldia gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera, 5 egun balioduneko epea ezarriko da hautagaiek merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko (egiaztagiriak aurkeztea). Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren iragarkian finkatutako eskabideak aurkezteko azken eguna baino lehenagoko merezimenduak baino ez dira baloratuko.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

Lehiaketaldian, horretarako ezarritako epean, hautagaiak azaldu eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira eta ez da beste merezimendurik baloratuko.

8.2.1. Lan-eskarmentua. Gehienez ere, 17 puntu, hauek kontuan hartuta:

— Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, administrari edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuetan lan egindako egun bakoitzeko 0,0155 puntu, gehienez, 17 puntu.

— Edozein enpresa pribatutan egindako zerbitzuengatik, administrari edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuetan lan egindako egun bakoitzeko 0,00775 puntu, gehienez,7 puntu.

— Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, administrari-laguntzaile edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuetan lan egindako egun bakoitzeko 0,009 puntu, gehienez, 10 puntu.

— Edozein enpresa pribatutan egindako zerbitzuengatik, administrari-laguntzaile edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuen lan egindako egun bakoitzeko 0,0045 puntu, gehienez, 5 puntu.

Lan-eskarmentua baloratzeko, egindako lanaldiak batuko dira. Zerbitzua denbora partzialean edo lan jardunaldi murriztuan eman den aldi guztiak lanaldi edo jardunaldi osotzat joko dira.

Lan-eskarmentua egiaztatzeko: «Aurreko zerbitzuen egiaztagiria» aurkeztu beharko du hautagaiak, erakunde publikoetakoa denean. Enpresa pribatuetakoa denean, berriz, ziurtagiria aurkeztu beharko du, honakoak zehaztuko dituena: kontratuaren iraupena edo izendapena, izandako lanaldia eta betetako eginkizunak. Halaber, hautagaiak lan-ibilbidea egiaztatuko duen dokumentua aurkeztuko du, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emandakoa, hain zuzen.

Lan-eskarmentuan ez dira praktikak aintzat hartuko.

8.2.2. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak. Gehienez ere, 10 puntu, hauek kontuan hartuta:

— Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza edo homologatutako 20 ordu arteko ikastaro-ordu bakoitzeko (Herri Administrazioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) 0,25 puntu, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero.

— Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza edo homologatutako 20 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko (Herri Administrazioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) 5 puntu, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero.

Merezimenduen balorazioa Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus) argitaratu ondoren, ezarritako kalifikazioen gainean erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea emango da.

Bederatzigarrena.— *Epaimahaiaren proposamena*

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako puntuak batuz aterako da, eta batuketa horrek erabakiko du behin betiko puntuazio-hurrenkera.

Epaimahai Kalifikatzaileak puntuaziorik altuena lortu duen hautagaia kontratupeko langile finko hartzeko proposatuko du. Halaber, proposamena argitaratuko da Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Udal Euskaltegiaren iragarki-taulan eta Udal Euskaltegiaren webgunean (euskaltegia.basauri.eus).

Berdinketa gertatuz gero, Epaimahaiak irizpide hauen arabera jardungo du, hurrengo hurrenkerari jarraiki:

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

a) Oposizioaldian puntuaziorik altuena lortu duen hautagaia.

b) Eskarmentuaren atalean, edozein administrazio publikotan administrari, edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuetan puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia.

c) Eskarmentuaren atalean, edozein administrazio publikotan administrari laguntzaile, administrari edo antzeko lanpostuetan edo arlo funtzional bereko lanpostuetan puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia.

d) Adinez nagusiagoa dena.

Berdinketa kasuan, ez da aplikatuko, Emakumeen eta Gizonen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Pertsonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, 7. artikuluan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, administrari lanpostuan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

Epaimahaiak ez du, inola ere, deitutako lanpostu kopurua baino hautagai gehiago proposatuko.

Aurrekoa hala izanik ere, Epaimahaiak zerrenda osagarri bat egingo du izangai guztiekin, proposatuko izangaiak kontratua egin aurretik lanpostuari uko egiten badio, lanpostua betetzeko.

Era berean, lan-poltsa sortuko da Udal Euskaltegian lanpostu berdinetan izan daitezkeen aldi baterako beharretarako. Lan-poltsa horretan lehentasuna izango dute, lehenengo, ariketa derrigorrezko eta baztertzaile guztiak gainditu dituztenek; eta, bigarrenik, lehenengo proba gainditu dutenek. Lehentasun-maila bakoitzaren barneko ordena oposizio-lehiaketaren azken emaitzaren araberakoa izango da.

Hamargarrena.— *Baldintzak egiaztatzea*

Proposatutako pertsonak ekarriko ditu, aipatutakoa argitaratzen denetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean, baldintzak betetzen dituela adierazten duten jatorrizko egiaztagiriak, alegia, deialdian parte hartzeko oinarrietan eskatu direnak, eta lehiaketa fasean baloratutako merituenak:

— Nortasun Agiria (NA edo baliokidea).

— Deialdi honetan parte hartzeko eskatutako titulu akademikoa eta ziurtagiriak.

— Kargu publikoetan aritzeko gaitasun gabetua ez dagoela edo diziplina espedienteren baten bidez Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertua ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitorpena.

— Administrazio publikoetako zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean aurreikusitako bateraezintasun-kausaren batean sartuta ez dagoela adieraziko duen zinpeko aitorpena.

— Mediku ziurtagiria, lana behar bezala betetzea galaraziko ez dion gaixotasun edo akats fisikorik ez duela egiaztatuko duena.

— Desgaitasunen bat duten hautagaiek, aurrekoez gain, dagokion lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, Administrazioari dagokion organoak emana.

— Sexu delitugileen erregistro zentralean erregistratuta ez dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztea.

Adierazitako epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiak ez balitu egiaztagiriak aurkeztuko, edo ez balu eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko, ezin izango da izendatu, eta bere jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira. Kasu horretan, organo eskudunak, azken puntuazioaren hurrenkeran hurrengo postua beteko duen pertsona izendatuko du.

Hamaikagarrena.— *Deialdiak eta jakinarazpenak*

Zazpigarren oinarrian ezarritakoaren kaltetan gabe, probak egiteko deiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko gainerako jakinarazpen eta komunikazioak ere,

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Udal Euskaltegiko iragarki- taulan eta webgunean(euskaltegia.basauri.eus) argitaratuz emango dira jakitera.

Erabakia argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus), Udal Euskaltegiko iragarki-taulan eta webgunean: euskaltegia.basauri.eus

Hamabigarrena.— *Gorabeherak*

Epaimahaiak oinarri hauetan zehaztu gabe dagoen guztiari buruz sor daitezkeen zalantzak ebatzi, eta hautapen-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak har ditzake.

Deialdi honen, bere oinarrien eta horien nahiz epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortzen diren administrazio-egintzen kontra dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

Basaurin, 2025eko maiatzaren 27an.—Udal Euskaltegiko Lehendakaria, Maria Fernandez Moran.—Udal Euskaltegiko Kontseilu Errektoreko idazkaria, Anne M. Ereñozaga Landa

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

1. ERANSKINA

GAIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Bibliografia

HABEren araudia: mailto:

https://www.habe.euskadi.eus/araudia-habe/webhabe00-edukiak/eu/

— Azaroaren 25eko 29/1983 Legea, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Sortaraztekoa eta Euskaltegiak Araupetzezkoa. (EHAA, 1983ko abenduaren 12a, 183. zenbakia).

— 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena. (EHAA, 2012ko apirilaren 16a, 74. zenbakia). 28/2019 Dekretua (EHAA, 2019ko martxoaren 4a, 44. zenbakia).

— 179/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena. (EHAA, 2003ko uztailaren 31, 149. zenbakia).

— Agindua, 2003ko abuztuaren 6koa, Kultura sailburuarena, euskaltegien eta euskararen auto-ikaskuntzarako zentroen erregistroa arautzen duena. (EHAA, 2003ko irailaren 10a, 176. zenbakia).

— Ebazpena, 2023ko azaroaren 17koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei zuzendutako dirulaguntzen oinarriak, 2023-2024 ikasturterako gutxieneko ikasle kopuruaren talde-ratioari eta zenbait ikastaro-moduluren baldintzei dagokionez. (EHAA, 2023ko azaroaren 24a, 225. zenbakia).

— Agindua, 2024ko urtarrilaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatzegintza arautu, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen 2020ko irailaren 9ko Agindua. (EHAA, 2024ko urtarrilaren 19a, 15. zenbakia).

— Ebazpena, 2024ko apirilaren 18koa, HABEko zuzendariarena, 2023-2024 ikasturtean euskara ikasleei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena. (EHAA, 2024ko maiatzaren 8a, 89. zenbakia).

— Ebazpena, 2024ko abuztuaren 26koa, HABEko zuzendariarena, 2024-2025 ikasturtean, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzen dituena. (EHAA, 2024ko irailaren 13a, 179. zenbakia).

— Ebazpena, 2024ko abuztuaren 30ekoa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baitira 2024-2025 ikasturtean A1 maila ikasten duten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten baita. (EHAA, 2024ko irailaren 11, 177. zenbakia).

— Ebazpena, 2024ko abuztuaren 30ekoa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baitira 2024-2025 ikasturtean C1C1 komunikagaitasun-maila helburu duten ikastaroak egiteko C1C1 helburu-maila eta abiapuntu-maila jakin bat duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak, eta dagokion deialdia egiten baita. (EHAA, 2024ko irailaren 12a, 178. zenbakia).

— Ebazpena, 2024ko irailaren 19koa, HABEko zuzendariarena, 2024/1 jardunbidea emateko dena, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2024-2025 ikasturtean zehar betebeharreko jarraibideak izan ditzaten (Ebazpena I Eranskinak eta fitxak).

— Ebazpena, 2024ko abenduaren 20koa, HABEko zuzendariarena, HABEren Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietako eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetako ikasleek 2024-2025 ikasturtean euskaltegiko mailaren atalasearen gaineko ebaluazioan oinarrituta Helduen Euskalduntzearen Oinarriz-

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

ko Curriculumaren (HEOCaren) zein maila egiaztatu ahal izango dituzten ezarri, eta 2025eko azterketa-deialdia egiten duena. (EHAA, 2025eko urtarrilaren 15a, 9. zenbakia).

— Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 8koa, HABEko zuzendariarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) zedarritutako B1, B2, C1 eta C2 euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatu ahal izateko, 2025. urterako deialdi irekia egiten duena. (EHAA, 2025eko urtarrilaren 23a, 15. zenbakia).

— Ebazpena, 2025eko otsailaren 21ekoa, HABEko zuzendariarena, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) zedarritutako B1, B2, C1 eta C2 euskararen komunikagaitasun-mailak egiaztatu ahal izateko 2025. urterako HABEren Ordenagailu Bidezko Egiaztatzegintza (HOBE) deialdia egiten duena. (EHAA, 2025eko martxoaren 7a, 46. zenbakia).

— Basauriko Udal Euskaltegian euskararen ikastaroetan parte hartzearen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala 2024ko azaroaren 12an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala), 218. zenbakian.

— Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikuluak). I. Titulua: Euskadiren eskumenak: esklusiboak, lege bidez garatu beharrekoak eta betearaztekoak (10-23 artikuluak).

— Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). Euskal Herriaren aginteak (II. Titulua). Ogasuna eta Ondarea: Ekonomia-ituna (III. Titulua).

— Administrazio Zuzenbidearen iturriak: Legea: kontzeptua eta motak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arau-hierarkia. Legezkotasun-printzipioa Administrazio Publikoan.

— Enplegu Publikoa (I). Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duena; Administrazio publikoetako langileak (8-13 artikuluak); Enplegatu publikoen eskubideak: Norbanakoaren eskubideak eta taldean baliatzen diren norbanakoen eskubideak. III. Titulua. III. Kapitulua (14-15 artikuluak). Lanbide-karreran aurrera egiteko eta barne-sustapena izateko eskubidea. Jarduna ebaluatzea. III. Titulua. II. Kapitulua (16-20 artikuluak). Ordainsari-eskubideak. III. Titulua. III. Kapitulua (21-30 artikuluak). Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea. III. Titulua. VI. Kapitulua. (52-54 artikuluak).

— Enplegu Publikoa (II). Administrazio-egoerak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren VI. Titulua; Langileen administrazio-egoerak euskal administrazio publikoetan (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen X. titulua). Hizkuntza-normalizazioa (Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII. titulua).

— 1/2003 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duena. Printzipio orokorrak (3. Artikulua). Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen eta aginteen jardueran genero ikuspegia txertatzeko neurriak (II. Titulua).

— 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearena; Prozeduran interesdun direnak. I. titulua. I. kapitulua: Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua (3-8 artikuluak); II. Kapitulua: Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea (9-12 artikuluak).

— 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearena. Administrazio publikoen jarduera. I. titulua. I. kapitulua: Jardueta-arau orokorrak (13-28 artikuluak). II. Kapitulua: Epe-mugak eta epeak (29-33 artikuluak).

— 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearena; Administrazio-egintzak. III. Titulua. I. kapitulua: Administrazio-egin-

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

tzen betekizunak (34-36 artikuluak. II. Kapitulua: Egintzen efikazia (37-46 artikuluak). III. Kapitulua: Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (47-52 artikuluak).

— 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearena; Administrazio-prozedura erkideri buruzko xedapenak (IV. Titulua); Prozeduraren bermeak (I. kapitulua). Prozeduraren hasiera (II. Kapitulua). Prozeduraren antolamendua (III. Kapitulua). Prozeduraren instrukzioa (IV. Kapitulua). Prozedura amaitzea (V. Kapitulua). Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua (VI. Kapitulua). Ebazpenak betearaztea (VII. Kapitulua).

— 39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearena; Egintzak administrazio-bidetik berrikustea. V. titulua. I. kapitulua: Ofiziozko berrikuspena (106-111 artikuluak). II. Kapitulua: Administrazio-errekurtsoak (112-126 artikuluak).

— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (Atariko Titulua. V. Kapitulua. 38-46 bis artikuluak).

— Administrazioaren zehatzeko ahala: zehatzeko ahalaren printzipioak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean (32-37 artikuluak). 1/2023 Legea, martxoaren 16koa, Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

— 10/1980 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa: Atariko titulua (1-14 artikuluak). I. Titulua: «Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean». (5. Artikulua). 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak (1-4 artikuluak). II. Kapitulua: Hizkuntza-planifikazioa (5-21 artikuluak). III. Kapitulua. Hizkuntza-eskakizunen sistema (21-41 artikuluak).

— 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europaren Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora: Administrazio publikoen kontratuak. 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena. Kontratuak prestatzea: kontratazio-espedientea (2. Liburua, 1. Titulua, 1. Atala. 1. Azpiatala, 116- eek: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2024a125-(II-3445) Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 125. zenbakia 2024, ekainak 28. Ostirala 12. orr. 120 artikuluak). Klausula administratibo partikularren agiriak eta baldintza teknikoen agiria (2. Liburua, 1. Titulua, 1. Atala, 2. Azpiatala, 121-130 artikuluak).

— 2016/679 Erregelamendu Orokorra (EB), Datuak Babestekoa: I. Kapitulua. Xedapen Orokorrak (1-4 artikuluak). I. Kapitulua. Printzipioak (5-11 artikuluak). III. Kapitulua. Interesdunen eskubideak (12-23 artikuluak).

— 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa. Xedapen orokorrak. I. Titulua (1-3 artikuluak). Datuen babesaren printzipioak. II. Titulua (4-10 artikuluak). Pertsonen eskubideak. III. Titulua (11-18 artikuluak).

— Enplegu publikoa (I). Enplegu Publikoaren Eskaintza eta langileak aukeratzea (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, I. Kapitulua, V. Titulua (69-71 artikuluak); 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa, Bigarren atala. I. Kapitulua. IV. Titulua (48-53 kapituluak). Zerbitzu-harremana hartzea eta galtzea (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, IV. Titulua. I. eta II. Kapituluak (55-68 artikuluak); 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. V. Titulua. I. eta II. Kapituluak (63-75 artikuluak).

— Enplegu Publikoa (II). Lanpostuak betetzea: lehiaketa, izendapen askea, behin-behineko langileak, zerbitzu-batzordeak; 5/2015 Legegintzako Errege De-

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

kretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; V. Titulua. III. Kapitulua (78-84 artikuluak) eta 11/2022 legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. VIII. Titulua (94-113 artikuluak).

— 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Atariko Titulua, I. Titulua eta II. Titulua (1-24 artikuluak).

— Apirilaren 2ko 7/185 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena. Xedapen orokorrak. (I. Titulua, 1-10 artikuluak). Udalerria eta gainerako Euskal Toki Erakundeak (2/2016 Legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (I. Titulua, 8-13 artikuluak).

— Udalerria (Apirilaren 2ko 7/185 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena. II. Titulua. 11. artikulua). Toki Erakundeetako Lurraldea eta biztanleria (7/1985 Legea, apirilaren 2koa. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. II. Titulua. I. Kapitulua (12-17 artikuluak). Biztanleria eta errolda (1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugen Araudia onesten duena (II. Titulua. I. Kapitulua, 53-59 artikuluak).

— Udal antolakuntza (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. II. Titulua. I. Kapitulua (19-24 bis artikuluak). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. IV. Titulua. III. Kapitulua (25-30 artikuluak).

— Toki-erakundeek erregelamenduak egiteko duten ahala (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. V. Titulua. I. Kapitulua (49. artikulua). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (1. Xedapen gehigarria). Basauriko Udal Araudi Organikoa (www.basauri.eus): II. Titulua: Udalaren beharrezko antolakuntza. III. Titulua: Udaleko beharrezko organoen funtzionamendua. IV. Titulua: Udaleko antolakuntza osagarria. VII. Titulua: Hizkuntza ez baztertzailearen erabilera.

— Udal Araudia eta Ordenantzak (www.basauri.eus). Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Araudi Organikoa. 2015eko otsailaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

2. ERANSKINA / ANEXO 2

ESKABIDEA / INSTANCIA

I. Norberaren datuak / Datos personales

NA edo baliokidea DNI o equivalente	Jaioteguna / Fecha de nacimiento	Herritartasuna /Nacionalidad
1. deitura / 1er apellido	2. deitura / 2.º apellido	Izena / Nombre
Helbidea / Dirección de residencia	Posta kodea / Código postal	Herria / Localidad
Probintzia / Provincia	Telefonoa /Teléfono	Mugikorra / Teléfono móvil
%33ko elbarritasuna edo handiagokoa baduzu, adierazi zer egokitzapen berezi behar duzun azterketak egiteko (behar baduzu) / Si tiene una minusvalía del 33% o superior, indique si precisa alguna adaptación especial para realizar los exámenes.		
Posta elektronikoa/ Correo electrónico		

II. Titulu akademikoa / Titulación académica

Deialdian eskatutako Titulu Akademiko ofiziala / Título Académico oficial exigido en la convocatoria

Titulua / Título	
Zeinek eta non eman dizuten Centro y localidad de expedición	Noiz lortu duzun Fecha obtención

III. Euskara / Euskera

Titulua euskara maila egiaztatzen duena / Titulo acreditativo del nivel de euskera

C1C1	Besterik / Otros

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

IV. Lan esperientzia / Experiencia laboral

Aitortzen diren merituak, aurkeztutako agirien hurrenkera berean zerrendatuta
Meritos que se alegan, en el orden de los documentos presentados

Betetako lanpostua Puesto de trabajo ocupado	Noiz sartu Fecha ingreso	Noiz utzi Fecha cese	Egun kopurua Cómputo días	Administrazioaren / Enpresaren izena Nombre de la administración/empresa

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

V. Prestakuntza / Formación

Ikastaroak eta prestakuntza jarduerak / Cursos y actividades formativas

Aitortzen diren merituak, aurkeztutako agirien hurrenkera berean zerrendatuta
Meritos que se alegan, en el orden de los documentos presentados

Ikastaroa Curso	Antolatzailea Organizador	Ordu kop. N.º de horas	Data Fecha

eek: BAO-2025a108-(II-3521)

Eskabide honetan agertzen diren datu pertsonalak beste herri-administrazioen esku jartzeko, deialdiaren xedearekin bat datozen helburuetarako baimena.

☐ Baimena ematen dut.

☐ Ez dut baimena ematen.

Eskabide hau izenpetzen dudan honek zera eskatzen dut: inprimaki honetan aipatzen diren hautaketa- probetarako onartua izatea. Era berean, AITORTZEN DITUT eske-idatzi honetan jarritako xehetasun guztiak egiazkoak direla eta Funtzio Publikoan sartzeko baldintzak betetzen ditudala, bereziki ezarritako deialdiari dagozkionak, bide batez eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko hitza emanez.

Eskabide honetan agertzen diren datuak norberaren datuen fitxategi automatizatuan jasoko dira. Fitxategi horren helburua hautaketa-prozesu hau kudeatzea da, baita prozesutik sortuko diren lan poltsak kudeatzea ere. Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakaria da fitxategiaren arduraduna. Hortaz, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, mugatzeko eta aurka egiteko, organo horretara jo beharko da (Urbi, 33, 48970-Basauri).

……n, 2025eko …… ren ……(e)(a)n

Basauriko Udal Euskaltegiko lehendakaria.

Consentimiento a la cesión de datos a otras administraciones públicas para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria.

☐ Doy mi consentimiento.

☐ No doy mi consentimiento.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente solicitud. Asimismo, DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para el ingreso en la Función Pública y las expresamente señaladas en la convocatoria, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

Los datos personales contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de este proceso selectivo, así como la correspondiente a las bolsas de trabajo que se deriven del mismo. La responsable de este fichero es la presidenta del Euskaltegi Municipal de Basauri, y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso rectificación, supresión, limitación y oposición. (Urbi, 33, 48970-Basauri).

En ……, a….. de ……. de 2025

Basauriko Udal Euskaltegiaren Kontseilu Errektoreko idazkaria

eek: BAO-2025a108-(II-3521)